

Gabonetan hainbat lehiaketa egongo dira gure herrietan

12. eta 13. orrialdeak

Zefe Ziarrustak liburua atera dau

Zefe Ziarrusta dimoztarrak *Barrutik sentsazioen koloreak taupadaka* poema liburua argitaratu dau. Bertan, 2010etik 2011ko negura bitartean idatzita dagozan poemak bildu ditu. Egileak berak editatu dau liburua eta Dimako tabernetan eta Igorreko prensa-kioskoan dago salgai. Aurkezpena zementariaren 30ean izango da, 20:00etan Dimako Jentilzubi herriko tabernan. **13. orrialdea**



Andrak kirola egingo dabe BEGITUREN eskutik Bedian

12. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

175

2012ko abenduaren 1a hamabostekaria
www.begitu.org

XXXVI. Nazinoarteko Ziklo-kros Euskadi Sari Nagusia Igorren

Aurten Igorreko Ziklo-krosa ez da Munduko Kopako probetako bat izango.

Arazo ekonomikoak dirala eta, Arratiako Ziklista Elkartek ezin izan deusto aurre egin araudiak eskatzen dituan lasterketa guztiak antolatzeko aurrekontuari (140.000 euro antolatzaileren estimazioetan) eta Erromak hartu dau lasterketea.

Dana dala abenduaren 9an, Olabarriko zirkuituan Igorreko XXXVI. Nazinoarteko Ziklo-Kros Euskadi Sari Nagusia jokatu da. Nazinoartekoa eta Euskadi Sari Nagusia izaten jarraituko dau eta bertan maila handiko ziklo-krosariak hartuko dabe parte, "hemengo jentea-

ren faboritoak" antolzaileen esanetan.

Betiko moduan goiz osoa hartuko dau Igorreko ziklo-krosak. 09:00etan Kadeteak, 09:45 Senior, Master eta Andra Juniorrak; 11:30ean izango da Euskadi Sari Nagusia Gizonezko Junior kategorian eta 12:30ean Elite eta 23 urte artekoak.

Abenduaren 16an, Zeberioko ziklo-krosaren XII. edizioa izango da, igazko etenaldia izan ondoren, Ugao Txirindulari Elkartek barriro antolatzeari ekin deusto. Igaz ez zan jokatu diru arazoakaitik. **8. eta 9. orrialdeak**

XXXVI ZIKLO KROSS IGORRE
IGORREKO VDELI

EUSKADI SARI NAGUSIA
ABENDUAK 9 DICIEMBRE

09:00
KADETEAK - CADETES

09:45
SENIOR, MASTER eta EMAKUMEAK
SENIOR, MASTER y FEMINAS

10:45
SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS

11:30
GAZTEAK - JUNIOR

12:30
ELITE eta 23 AZPIKOAK
ELITE y SUB 23

13:30
SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS

www.ziklokrossigorre.com

Abenduaren 9an izango da Igorreko ziklo-krosa.

ZEBERIO

XVII. mendeko etxea salgai

Monumentu izentautako eta jaustear dagoan Sutegi baserria saltzean dau Zeberioko Udalak. Prezioa, enkantean izan arren, 700 euro inguru izan daiteke, baina, baldintza pleguetan agertzen dan moduan, jaubetza ez da gauzatuko etxea konpondu arte. Izan be, eroslea konpondu tera konprometiduten da. Konponketak baserriaren ezau-garriak mantentidu behar ditu. **6. orrialdea**



ARRATIA

Euskerearen aldeko konpromisoak

Abenduaren 3an Euskerearen Nazinoarteko Eguna da eta ospatuteko ekitaldiak izango dira abenduaren 1a eta 3a bitartean. Diman, Igorren eta Lemoan herritarrak euskerea erabilteko konpromisoak sinatuko dabez. Areatzan eta Zeberion, ospakizun ludikoagoak antolatu dabez egun horretan euskerea kalera aterateko. **7. orrialdea**

DIMA

Eskolearen mantenimentua auzolanean

Auzolanean egingo dira Dima Ugarana ikastetxearen mantenimentu eta segurtasun beharrak. Lanok Udalarri jagokoz baina Udalaren egoera ekonomikoa dala eta, gurasoak eurak hasi dira lanok egiten. Horretarako lan taldeak osatu dabez eta margotze lanak, konponketak, segurtasuna bermatzeko lanak eta zabuen azterketea egiten dabez. **5. orrialdea**

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

Sab no Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

Honezkeru zabalik

ZEURE BERBEA

Lemoa eta Arteako eskolan erlijino irakaslea erdalduna

Lemoa eta Arteako eskoletan arazoa daukagu Hezkuntza Sailak erlijino katolikoko irakaslearen ordezkapena beteteko bidali dauanaren hizkuntza profilagaz.

Urri bigarrenaren 31n ikastetxean geunkan erlijino irakaslea jubilau egin zan. Zemendiaren 5ean irakasle batek deitu euskun esanez gure ikastetxean izentau ebela erlijino irakasle, baina bere euskera profila PLO zala eta klaseak gazteleraz emoten zituala.

Errakuntza bat izango zala esan geuntsan, gure ikastetxea D ereduakoa dalako. Bilboko Hezkuntza Ordezkaritzako Personal Atalean arazo hori Lakuako Personal Atalean konpondu behar ebela esan euskun. Zemendiaren 5ean Lakuan Personal Burua dan Juan Manuel Aramendi jaunarengana jo genduan. Aramendi jaunaren idazkariagaz egun desbardinetan lau bider berba egin ostein, abisua emonda egoala eta gugaz hartu-

emonetan ipiniko zirala azaldu euskun. Hezkuntza Delegaduari be eskutitza bideratu deusagu, baina hemen be erantzunik ez. Bizkaiko Personal Buruak be telefonoz onartu euskun neurria legearen kontra joiala, baina berak nagusien aginduak bete behar zituala.

Tristeia da arautegia beteteko ardura dauanak berak urratzea. Egunak aurrera doaz, ikasleak ez dabe jaso legez D eredurako araututako erlijino klaseak euskeraz, gurasoak protestetan hasiak dira eta arazoa ikastetxeko irakaskuntzea kaltetzen hasi da.

Ordezkaritza Organo Gorenak azken batzarrean bere ezezko biribila emon deutso erlijino klaseak gazteleraz emoteari, eta bertan ordezkatutako estamentuak prest dagoz behar dan guztia egiteko arazoa konpondu arte, eta legediaren arabera jakokun erlijino irakasle euskalduna esleitu arte.


JON ALBIZBEASKOETXEA
HORMAETXEA
JB EGUZKITZA MEABE
LHI-KO ZUZENDARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zoli



Berba bat zenbat eta gitxiago erabili galtzeako arrisku handiagoa dago. Horixe da zoli berbearen kasua. Arratian zabal-zabal erabili izan da eta beti esangura positiboan. Esate baterako, persona zolia izaten da 1. arina (bizkorra), 2. zuhurra (argia) edo 3. sendoa (gogorra) izaten dira. Frutea edo ortuaria bada, heldua izaten da, jateko sasoirik onenean dagoana. Animalia bada, kume edo gaztea izatetik, heldua izatera pasau dana, hau da, sexua egiteko gai dana. Azkenez, atzamar bateri be hatz zoli edo sendo esaten jako (batuaz, hatz erakusle danari hain zuzen be).

ERETXIA

Motibazino faltea

Zoriontsu izateko, hobe ei da barriak ez ikustea. Penagarria da eta egunero-egunero kontetan deuskuena. Penagarriagoa da baina, inork ezer egiteko asmorik ez daukala konturatutea.

Sarritan dana hankaz gora dagoanaren sensazioa daukadan arren, telebistan irudikatzen dan nahaste-borrastea era dikotomikoan ordenauz doala esango neuke, egunez-egun forma hartuz. Alde batetik, langabeziak gora, pensinoak behera, EREak, greba eta manifestaldiak nongura eta nozgura, etxe kaleratzeak, jantoki solidarioak... bestalde, soldata eta eskubideen murrizketak, ustelkeria, lan eta legeen erreformak, bankuen erreskatteak...

Holan ba, alkarrengandik ondo bereizitako mundu bi ikusten dodaz, alkarrengandik apurkarena urrunduz baina alkar elikatuz, batak bestea barik zentzua galduko baleu legez. Dikotomia honetan norberak leku bat beteten dau; goian edo behean.

Bere momentuan ikasi neban, gure desioak infinituak izanik daukaguzan baliabideak eskasak dirala. Personok daukagula, baliabide urri horreek (denporea, lana, dirua) zelan erabiliko diran ebazteko ahalmena. Ekonomilari batzuen ustetan, personok onura maximizetea aukeratzen dogu, halaber. Halanda be, onartzen da segun eta ze gizarte edo eta ze momentu, motibazino desbardinak jarraituten dirala arlo desbardinak maximizetako asmoz; besteak beste, onura, aberastasuna, prestigioa, plazerra, ongizatea edota zergaitik ez, harmonia soziala. Danaren gakoa orduan, jarraituten dogun motibazinoan ete dago?

Gure inguruan egindako aukerea argi dago. Aberastasuna izan



AITZIBER MILIKUA ETXEBARRIA

Irakaslea

da jomuga eta beragaz batera ekarri dauz prestigioa, plazerra eta ongizatea, batzuentzat bai behintzat. Harmonia soziala baina kolokan ipini da aberastasuna lortu ebenengandik distantzia areagotuz doan neurrian.

Badira baina, edo baziran behintzat, arrazoi desbardinak dirala medio, beste motibazino baten oinarritutako eskualde sistemak. Iparramerikan Ozeano Bareko kostaldean zehar kokaturiko zenbait triburen artean, kwakiutl-ak barne, "potlatch" eritxan jai-ekitaldia praktketan eben, non (labur esanda) parte hartzaileen artean opari-trukea emoten zan. Ekitaldi honetan, komunitate batek elikagaiak, kobrea, mantak eta bestelako opariak aldatzen ebazan prestigio edo ospearen truke. Segun eta zelango opariak trukatu halako balioa eukiko eban lortutako ospeak be. Aberastasuna elementu materiabako (ospea) bihurtuten zan.

Praktika hau azaltzen saiatu diran hainbat teoria dagozan arren, azpimarratzekoa da nahiago ebela urte bateko uzta-soberakinai (esaterako) uko egin euren arteko desbardintasun sozialak areagotzea baino. Gainera, ordain solidariotzat be jo daikugu, izan be, uzta txarra izandako tribua ez da eta atzean geratuko, *potlatch*-aren bitartez, irabazitako prestigioa beharrezkoa daukanagaitik trukaturiko dau eta.

Motibazinoak aldatu egiten dira beraz. Kontua da sarritan personok ez daukagula askatasunik geure baliabideen norakoa aukeratzeko, behealdean gagozalako, akaso. Eta goikoak... motibazino faltea ete dabe?

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tolosa auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharreen beharrez,
euskeraz eginez

Euskeraz
Batz en gaitu

HONDRAGON

LUMATUTEN


**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA**
**Arantzazuko
jentil-harria**

Antxina, Arantzazuarrok harritzko zubi eukien eginda eleizara bidean, baina ezin eben gauzonik egin uriolakaz. Arrati-errekea handi-handi etorten zan bakotxean, errekariko beste gauza asko ezeze, harritzko zubi horri errementarazo eta errekea behera eroaten eutsan zubi zatia, alde batekoa enpartikular, bestekoa ez, ze bestean arta handi bat dago oraindino be, alosoko artea, artarra, eta hak hobeto jagoten eban, seguru, bere alderdia. Eta, ba barriro beharrekua zubiginen, hurrengo uriolak noz etoniko bildurkilik.

Arantzazuarrok gogait eginda egozan zubigintza horregaz eta egun baten Gorbeia, Itxinara joan ei ziran, han Supelegorren bizi ziran jentilak laguntzea eske. Jentilok harrera ona egin ei eutseen, onezean joan jakiezalako,

ze txarrezean, mantzinak ei ziran gero horreek jentilok, eta esan ei eutseen ba ze:

- Zer dakarskuzue ba, hain estu eta larri etorteko, beharreztanaren bat sugertatu jatzue ala? Zeuon onetik urtenda zagoziela dirudizue, zer deuskuzue ba?

- Ba, aiko, arantzazuarrok ezin dogu gauzonik egin uriolakaz, uriola bakotxean, Arrati-errekako ur handiak txirran letxe eroaten deusku Arantzazuko arku eta guztizko zubi zati ederra, eta atzera konpondu behar zubi, errotara zein eleizara pasauko bagara. Eta, ba, zuokana gatoz laguntzea eske.

- Bueno ba, ez egizue odol txarik egin, belea baltzago ez da egingo eta. Zoazie zeuonera eta zeozer egingo jatzue gaineko egunen baten, zelanbaist konponduko dogu zuon zer hori, problema hori, gatxagoak be egin doguz eta. Guk zeozer ideatu edo asmatu bitartean, zuok ekin zubigintzeari.

Baeragoioen arantzazuarrok zubiginen, eta, ba, handik denporeagarranean, Supelegorreko jentilak, hartu Itxinako hazduitik haitz edo hami endemonino bat eta, tandaka, seguru, orain jentil batak eta gero besteak, Arantzazun agertu ziran harritz horregaz. Arkudun hartzubi ondora ailegau ziranean, harritz hori ipini eben zubi fazilen apurtan zan zerean, tramoan, zubiari uriolak kalterik egin ez egiteko moduan, zeinda parapeto lez. Eta harexegaz, santo erremedio, seguru, jentilen laguntzari esker. Zer dan onezean ibiltea e?

Arantzazuarrok orduan, agradezitateko, ardi-errebau bat opatu ei eutseen jentiloi, egin eutseen mesedeagaitik, eta danak pozik!

ZERTZEAN

MAITE YURREBASO
Tran tran

BEGI TXINDORRA

Jose Angel Mintegik bialdutako argazki honetan sorgin-orratz bi agertzen dira txortan eta euren gorputzakaz bihotz formako irudia egiten dabe. Bitxia.

Begiralean begiradan dago forma hori bihotzagaz eta bihotza amodio erromantikoagaz lotutea, jakina. Dana dala, eta deitu egidazue eszeptiko gura badozue, baina susmoa daukat, sorgin-orratzen arteko estalketak ez daukala ezelango erromantizismorik.

Gizakion arteko sexu hartu-emonak eta animalienak desbardinak dirala pentsetea gustetan jaku. Hau da, pasinoa eta samurtasuna, infinitoa eta klimaxa, eta amodioan biziten doguzan esperientzia horreek gu eta animalien arteko diferentzia marketan dabela. Bartzuek, baina, esango dabe animaliak holango gauzak be sentiduten dabezala.

Ez dakit. Sorgin-orratz bi horreek? Akaso!

Sorgin-orratzak bihotzaren forma marrazten dabe euren gorputzakaz txortan egitean. Polita da. Baina hutsa.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
 gorosti@gorostiscl.com


Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
 Marina Urigoitia Aideroa
 Odontologia
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bizkaia
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zirkulu 110
 R.P.S. 25/06


JANDONIZ
 nagusientzako etxea
 residencia para mayores
 Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Hondakin organikoak jasoteko zerbitzua abian da

Arratiako Udalen Mankomunitateak sukaldatu bako landara eta barazki jatorria daukien hondakinak gaika biltzeako zerbitzua ipini dau martxan.



Uriguen eta Gorospe.

Erredakzinoa

Honetan parte hartzea borondatezkoa da, baina 500 etxetik gora izan dira nahi hori agertu dabena, Josune Gorospe AUMko presidentearen esanetan zemendiaren 19an egindako "Zaindu gure lurra, marroia erabili" kanpainaren aurkezpenean.

Ekimen hau Foru Aldundiaren Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala 2005-2016ren eta Bizkaiko Uri Hondakinaren Aurrezaintzarako Plana 2010-2016ren barruan kokatzen da eta gaikako bilketea egiteko bosgarren edukiontzia ezartea aurreikusten dau. Edukiontzioak, eskualdeko bederatzia udalerrietan ipiniko dira, izena emon dabena etxeokoi zerbitzua emoteko.

Giltzaz zarratutako edukiontzia

Edukiontzia marroian jasotakoagaz

konposta egingo dala emon eban jakitera Gorospek eta konposta kalidadekoa izan daiten, sano inportantea da edukiontzian horretarako balio dabena hondakinak baino ez botatea. Horregaitik parte hartzea borondatezkoa da eta "konpromisoan oinarritzen da". Partaideak eskuliburu bat jasoko dabe, berbaldiak egingo dira udalerriri guztietan eta herritarren arretarako zerbitzua ipiniko da martxan ekimenaren gaineko informazioa lortzeako eta zalantza guztiak argitzeko. Parte hartzailei, etxerako 10 litroko edukiontzia txiki bat, boltsak eta kaleko kontenedorerako giltza be emongo jakiez.

Ekimen hau martxan ipinteko aurrekontua 115.000 eurokoa da eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu dau bere gain.

Zaborteigira zabor gitxiago

Aitor Uriguen mankomunitateko ingurumen teknikariaren esanetan, hondakin organikoak edukiontzia marroian ipini ezkerro, zabor gitxiago eroan behar izango da zaborteigira eta dirua aurreztuko da. Jasotako hondakinak Artigasko konpostaje plantara bialduko dira konposta egiteko, "hondakinai ingurumena kaltetzen ez dauan urteker bat emonez" Igorreko transferentzia planta egin bitartean; hau egingandakoan bertan egingo da konposta eta. "Konposta lurzorua aberasten dauan substratua da eta obra zibilean, mendietan eta berdeguneetan erabili daiteke" dinoe.

Etxeetan hasi eta urtailan fruta denda, supermerkadu eta jate-txetara zabalduko da kanpainena.

ARRATIA

Konstituzino egunean herri eskolak Institutuan

Erredakzinoa

Arratiako Ikasle Abertzaleak ikasle antolakundeak ezetz esango

deutso "jai egun arrotz" bateri. Oraingoan, Espainiar Konstituzinoaren eguna dan abenduaren 6a izango da. Aurreko urteetan lez herri eskolak antolatu dabez gazteak helburu honegatz: "Ez daukagu jai arrotz bat ospatuteko inongo asmorik", esan deutso BEGITURI antolatzaileetako batek. Egun horretan protesta moduan joko, bideo emonaldi eta berbaldiez gainera, txalaparta tailerra be egingo da.

IGORRE

Udalak % 2ko igoerea onartu dau tasa eta zergetan 2013rako

Erredakzinoa

Orokorrean, % 2ko igoerea aplikauko bajakie be zerga eta tasa gehienai, IBI, IAE, Obra eta Ibilgailuenai, hain zuzen be; Kultura eta Kirolaren arloko tasak ez dira igoko.

Igoera honen arrazoia "Udalaren finantziazioa jagotea izan da; zerbitzuen kalidadeari eustea, herritarrek zigortu barik" Udaletik jakitera emon dabena araber. Izan be, tasak udalen diru sarreretan eragin zuzena daukie.

Kirola eta kulturaren igoerarik ez

Udal iturrien araber, Udalak herritarrei kirola eta kultura praktikau ahal izateko baliabideak emotea gura dau kultura eta kirol ekintzen tasak eta zergak izoztuta. "Gainera, kirolean hobariak ezarri dira familia ugariantzat eta ezgaitasunen bat daukien pertsonentzat. Herriko talde federatuak be izango dabe gimnasioa erabilteko aukerea euren jardueraren osagarri moduan".

Kulturaren prezio berean mantenduko dira kultur etxeke eskeintza, zine eta ikuskizunetarako sarrerak eta ikastaroetako matrikulazioa.

ZEANURI

Udalak diruz lagunduko dau BEGITU Aldizkaria

Erredakzinoa

Zeanuriko Udalak BEGITU diruz lagundutea ebatzi eban urrietan egindako udalbatza baten. Hau gauzatzen danean, hamarretik zazpi izango dira BEGITURI laguntza emoten deusien udalak: Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio.

BEGITU Arratia Ubide eta Zeberioko informazioa euskera hutsez emoten dauan tokiko agerkari bakarra da eta herrietako euskera bizibarrizteko planetan, euskerazko hedabideai lagunduteko borondatea azaltzen da. Izan be, adituaren ustez, hedabideak estrategikoak dira hizkuntza baten normalkuntzarako.

DIMA

Gurasoak egingo dabez eskolako mantenimentu lanak eta konponketak

Erredakzinoa

Dima-Ugarana eskolako mantenimentua azolanean egingo dabe dimoztarrak eskolea egoera onean mantentidu eta bertako segurtasuna bermatzeko. Eskolea publikoa danez Udalari jagoko mantenimentua baina honen egoera ekonomikoa dala eta, eskoleak familiei alkarlanean eta danen artean konponketak egiteko deia luzatu deutse. "Familien aldetik erantzuna eta inplikazioa handia izan da parte izateko go-go agertuz" azaldu dabe eskolako iturriak.

Holan, eskoleak familiakaz egin ditu bilerak helburuak zehaztu, lan taldeak eratu eta Udalagaz koordinetako. Orain arte lan talde batzuk lanean ibili badira be, deialdi orokorra zemendiaren 17rako zabaldu zan eskolako familia-kide guztientzat, danon artean lanak egiteko eta era berean egoeraz kontzientzia eta komuni-

dadea kohesionetako. 50 lagun inguruk parte hartu eben, honen artean gurasoak, ikasleak eta eskolako irakasle batzuk. Goizeko 09:00etan batu ziran eskolan eta "alkatea be hurreratu zan Udalaren egoera ekonomikoa azaldu eta bertaratutakoai eskerrak emotera. Goiza giro ederrean joan zan eta behar asko egin bazan be, hainbat gauza amaituteko geratu diranez, aurrerantzen be holako deialdi gehiago egongo dira" azaldu deutso BEGITURI bertan egondako guraso batek.

Ordu askotako lana

Lehenengo hiru hilekoan, lan taldeak, margotze-lanak, konponketak, segurtasuna bermatzeko lanak eta zabu eta txinboen azterketea egingo dabez, beste batzuen artean. "Hau guztia bideratzeko, batzorde bako-tzak bere aurrelanak egin behar izan ditu: lan plangintzearen diseinua egin, aurrekontuak eskatu, garbiketa lanak, material eskariak...".



Dimako eskolan auzolanean herritarrek.

ARRATIA

Zemendiak 25, martxa morea

Erredakzinoa

Zeanuritik, Areatzatik eta Arteatik oinez joan zan martxa morearen zutabe bat Igorreko zemendiaren 25eko konzentrazinora. Beste jente partida bat Dimatik eta Lemoatik be abiatu zan. Igorren 200 persona inguru batu ziran Kultur Etxearen aurrean andren kontrako biolentzia deuseztatzeke eskatzen.



ZEBERIO

Nerbioi-Ibaizabaleko Jasangarritasun Bulegoak saria irabazi dauErredakzioa

Udalsarea 21eko Praktika Onenen saria irabazi dau Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko (Zeberio dago eskualde honetan) Jasangarritasun Bulegoak, Iraunkortasun Integrala mailan.

Udalsarea 21eko Tokiko Iraunkortasuneko Praktika Onenen Sariak Euskadiko udalerriak iraunkortasunaren alde egindako lana saritzen dabe urte birik behin. Aurtengoa laugarren edizioa izan da eta, guztira, 41 hautagaitza aurkeztu dira.

Saritutako proiektua, Jasangarritasun Bulegoa, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen ekipamentua da. Bulego honek hamaika udalari, tartean Zeberiori, zerbitzua, baliabideak eta jarduerak eskeintzen deutsez. Ingurumenaren arloan jarduten daben gizarte-eragileak eta herritarrei laguntzea emongo deutse Tokiko Agenda 21en arloan, iraunkortasun erispideak udal politikan integretako.

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerriak Udalsarea 21eko Iraunkortasunaren Aldeko Udalerrien Sarearen parte dira 2006az geroztik.

ZEBERIO

XVII. mendeko etxe bat erosteko aukerea Sautuolan

Bizkaian dagoan monumentu multzo bakarraren parte da Zeberioko Sautuola auzunean jaustear dagoan

Sutegi baserria. Herriko "ondare eta ondasun hau" enkantean salduko deutso Udalak berreraikitera eta bertan bizitera konprometiduten danari.

Erredakzioa

Eraikina Udalarena da Caja Laboral-Euskadiko Kutxak emonda. Zeberio errekea eta BI-3524 kaminaren artean dago Sautuola 12 zenbakian.

Lau baserrik osotuten eben monumentu multzo hau. Horreetatik bi galdu egin dira, beste bat "jaube partikular batzuen da eta printzipioz ondo dago" eta laugarrena, Sutegi izenekoa, jaustear dago baina berreskuratu da. Horregaitik Udalak ebatzi eban hori erabili eitekela herritarrei eskeintzeko eta eskeintza on bat aurkeztuta, baten batek ardura hori hartu eta berreraikitzeko.

Etxea ez da oso handia, planta bi daukaz eta planta bakotzeko 60 metro karratu. Izan be, ora-

in desagertuta dagoan Bediena Nagusi (Kokotenetxea) bentari errementari zerbitzua emoteko



Sutegi baserria.

eraiki zan.

Etxebizitza prezio onean

Helburua ez dala baserria udalarentzat diru iturria izatea, mantenu eta berreraikitzea baino azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak. "Baldintza orriak egin eta baserriaren salmenta 700 euro ingurutan (Udalari erregistroan izena aldatzea kostauko jakozan gastuak) ipini zan. Hartzaileak ez ebalab jabeagoa eskuratuko eraikina konpondu arte be zehaztu zan, beste baldintza batzuen artean". Epe batzuk ipini eta abal batzuk eskatu zituen. Interesdunak agertu ziran baina salmentea ez zan gauzatu. Orain, baldintza batzuk aldatuko ditue

jenteak erreztasun handiagoak izan daizan mailegua lortzeako eta abalari aurre egiteko.

Sutegik mantendutuen dituan XVII mendeko ezaugarriak errespetatu behar dira berreraikitze lanetan.

Herriko ondasuna mantenduteko ahalegina

"Gu udalera sartu ginanean, hasi ginan inguru horren egoerea aztertuten eta ikusi genduan Sutegi Caja Laboralarena zala. Orduan, eurek harremanetan ipini ginan eta komentau geuntsen baserria interes arkitektonikodun eraikina izentau ebela eta zeozer egin behar ebela hori jagoteko eta berreraikitzeko; jaubeak derrigortasuna dauka baserriaren egoera jagoteko eta bere ezaugarriak mantenduteko eta. Caja Laboralekoak esan eben eurek ez eukiela konponduteko interesik, etorri jakielako mailegu hipotekario baten bitartez, eta prest egongo litzatekeza Udalari emoteko. Zeozer egin behar zalakoan Sutegi salbetako, onartu egin genduan Caja Laboralaren zesinoa. Udalaren eskuetara pasetan dan momentuan, Udala da mantenduteko erantzukizuna daukana. Eta horrek suposatzen dau pentsau behar dogula zer egin daiteken baserri hori jausi ez daiten. Holan, herritarrei aukerea emoten jakie etxebizitza eukiteko eta, bide batez, baserria berreskuratzeko" dino alkateak.

LEMOA

Udalak azterketak hasi ditu antxinako harrobianErredakzioa

Lemoako Bilduk jakitera emon dau baimenik bako isurketarik egin dan argitzeko Udalak ikerketak abiatu dituala Lemoako harrobi zaharrean.

Basoina S.L. ingurumen ingeniariatza enpresako teknikariak hasi zituen analisiak zemendiaren 19an. Momentuz, lur azpiko ur filtratuak aztertuko dira. Ikerlariak betetze hodiaren sakonetik lixibaduen lagina hartu dabe aztertzeko eta isurketa ilegalak egon diran zantzurik topau ezkerro, harrobi zaharreko lur laginak aztertzea litzateke hurrengo pausua.

Informazio falta salatu dau Udalak

Ikerketa horreek bere kabuz abiatzera behartu ikusi dala salatzen dau Udalak, ustezko isurketa ilegalen inguruko espedientearen gaineko informazioa



Lemoako harrobia.

"behin eta barriro eskatu arren, Eusko Jaurlaritzak ez deusalako Lemoako Udalari erantzun bakar bat be emon" salatuten dau Bilduk prensa ohar batez. "Udaletik, Eusko Jaurlaritzak ilunkeriak eta gardentasun faltaz jokatu dauala nabarmendu gura dogu" dino.

ZEBERIO

Baserriko eta ijitoen produktu tipikoak Zeberioko azokanErredakzioa

Abenduaren 2an, Bertako Produktuen XIV. Azokea egingo dabe Zubialde plazan.

Baserriko produktuak, abereak, artisautza, ijitoen produktu tipikoak... Eskeintza ugaria izan daiten saiatzen dira Zeberion eta azokak, igazko moduan, 27 erakusmahai inguru izango ditu. Goizeko hamarretan hasita, Argi eta Iker trikitilariak alaituko dabe ingurua euren musikeagaz. Gainera, taloa jateko aukerea be egongo da Austarri Mendi eta Kultur Taldeak ipiniko dauan txosnan.

Igazko erakusmahai kopurua mantenduko dabe Zeberion, nahiz eta BBK-k kaseta gitxiago ipini. "Igaz 16 itxi euskuzan eta aurten 12. Baina Zeberio oholak eta kaballeteak dituan, aterpean ipinten doguz, euria egin ezkerro babesteko, eta BBKren kasetaxoak, kanpoan" azaldu deutso BEGITURI Nahikari Añibarro kultura

zinegotziak.

Azokan gure baserrietako ortuari, gaztai, ezti eta beste produktu on asko egongo dira salgai, baina ez horreek bakarrik. "Azoka ahalik eta ugariena izan daiten saiatu gara: bitxiak, narrua, zermikea, euskal pastela, ogia, eztiak, esnekiak, gaztaia, tailak-altzariak, Fussin-beira, erropa birzikladua, txakolina, baserriko hanburgesea... eta Zeberioko Sueticalli Elkarrekin ijitoen produktu tipikoak ekarriko ditu".

Abere azoka berreskuratzen

Ganadua be ez da faltako baserri giroa plazara ekarteko. Abereen kontua galtzear egoan azoka honetan eta igaz hasi ziran Udalekoak ahalegin berezia egiten eta hainbat baserri eta abeltzaineri luzatu eutseen konbitea. Batzuek onartu eben eta beste batzuek, abereen kumaldiak dirala eta, ez. Oiloak, pottokak, zaldiak eta ardiak egongo dira Zeberion.

IGORRE

Lokalak danontzat zabalik Lokal EguneanErredakzioa

Abenduaren 1ean, Udalaren ekimenez Lokal Eguna ospatuko dabe herriko gazteak eta ekitaldiz betetako egitaraua antolatuta dabe. Lokalik onenak saria izango dau dirutan.

Egun horretan lokalak zabalik egongo dira danontzat eta "olinpiadak" egingo dira lokalak lokal Olabari 15ean hasita. 15:00etan, bazkaria izango dabe bertaraten diranak Igorreko eskolako aterpean. Bazkalostean jarraituko dau jaiak eta 17:00etan karaokea eta ginkana izango dabe gazteak. Gero trikopoteoa herriko tabernetatik.

Arrastiko zortziretan herriko musika taldeak kontzertuak eskeiniko dabez Kukuma, Axular herriko taberna eta Rugby tabernan.

ARRATIA

Konpromisoa bultzatuko dabe euskerearen iraupena bermatzeko

Euskerearen Egunean, euskerearen erabilera bultzatu behar dalakoan, herritarren konpromisoa bultzatu dabe udalak Dima, Igorre eta Lemoan hitzarmenen bidez.

Erredakzioa

Gainera, ekitaldi kultural eta kirol ekitaldiak antolatu dabez Areatzan eta Zeberion Euskerearen Eguna ospatzeko.

Abenduaren 3an ospatuten da Euskerearen Nazinoarteko Eguna, San Frantzisko Xabierkoaren egunean, hain zuzen be. Ekitaldien artean, euskerearen erabilera bultzatzeko hitzarmenak dira nagusi gurean, eta euskerea kalera atera gura daben ekitaldiak be ez dira faltako.

Hitzarmenak

Igorren, Euskera Egunean, hilaren 3an, Igorreko merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzugintzak eta Igorreko Udalak hitzarmena sinatuko dabe 20:15ean Kultur Etxean. Honen bidez, arlo horreetan euskerearen presentzia indartzea espero dabe Beinke! Igorreko merkatarien euskera taldekoak eta Udaleko Euskera Zerbitzuak. Gero, berbaldua, bideoa eta kopautxoak egongo dira konpromisoa indartzeko.

Lemoan be hitzarmena sinatuko dabe. "Lemoako Udalak onartu barri dauan Euskara Biziberritzeko Planaren helburu nagusia da euskeraz bizi gura daben herritarrai horretarako aukerak bermatzeko behar diran hizkuntza-politikako neurriak ebaztea eta bultzatzea. Oraingoan, herriko erakunde eta eragileai jagokie norabide horretan pausuk emotea. Horregaitik, parte hartuko daben alkarte eta eragileak eta Lemoako Udalak hitzarmena sinatuko dabe, euskerearen era-

bilera areagotzeko konpromisoa bereganatuz" azaldu deutso BEGITU Miren Madariaga Lemoako Udaleko Euskera Zerbitzukoak.

Lemoako Euskera Saila hasi da kultur, aisi eta kirol alkarte batzuk alkarlanean eta falta diran alkar-teakaz aurrerago jarriko da kontaktuan, ez dabela "inor baztertuko" dino Madariagak.

Diman, Diman 200 baietz ekimena martxan da. Honen bitartez herritarrak 2013an euskerearen alde zerbaist egitera konprometiduten dira. Holan, batek tabernetan euskeraz egiteko konpromisoa hartu ahal dau eta beste batek internet euskeraz erabilteko, berbarako. Abenduaren 3an, 18:00etan, Dima 200 baietz konpromiso sinatze ekitaldia izango da eta gero txokolatea.

Euskera plazara

Beste herri batzuetan, euskerea kalera eta plazara ateratzeko hainbat ekitaldi antolatu ditue. Areatzan, abenduaren 1ean, zapatuan, os-

patuko dabe Euskerearen Eguna egun osoko egitarau bategaz. Aurreko egunean baina 23:00etan DJa egongo da gaztetxean. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira zapatuan umeentzako duatloia. Gero, 12:30ean, eurentzako jolasak egongo dira. Arrastiko lauretan pelota partiduak eta zazpitan ipuin kontalaria 4 eta 9 urte arteko umeentzat eta antzerkia nagusien-tzat Udal Areatan. Domekan kantu poteoa egongo da goizeko 11:30ean hasita.

Bedian, be zapatuan izango da Labayruk egindako Bediako Ondarearen Katalogoaren aurkezpena, arrastiko seiretan frontoian. Katalogoa egiteko ikertzaileak izan dabez informanteak be egongo dira bertan.

Zeberion be zapatuan izango dira ospakizunak. Horretarako herri kirol antolatu ditue Ermitabarriko frontoian eta bertso-bazkaria taberna zaharrean. Xabier Amuriza eta Fredi Paiak kantauro dabez bertsoak.



ARRATIA

Argazki bilduma barri bi BEGITUREN webgunean

Erredakzioa

BEGITUREN webgunean dokumentu interesgari barri batzuk topau daitezke: Dima Folk jaialdiko argazki eta bideoak eta zementziaren 25eko martxa morearen argazkiak. Areatza-Igorre, Dima-Igorre eta Lemoa-Igorre ibilbidea egin ebenen testigantza grafikoa, hain zuzen be.

Gure webgunean be topau daitezkeen inkestari jagokonean,

ea Kataluniak independizatea lortuko dauan hasi barri dan legegintzaldian izan zan pasa dan hileko itauna, eta BEGITUREN irakurleen eretxiak ez datoz bat. Ezezkoa nagusitu da erantzunen % 42,86 jaso, baina independizauko dala pentsetan dabe erantzun daben % 28,57k eta zalantzak daukiez beste % 28,57k, honeen erantzuna "akaso" izan da eta.

Abenduko itauna hauxe da:

"Gabonak familiagaz pasauko dozuz ala biajeran bat egiteko asmoa daukazu?".

BEGITU Gabonetako oparia

Gabonetarako opari original baten bila ibili ezker, baten bateri BEGITU Lagun izatea oparitzeko aukerea badago. Urteko kuotea pagauta, 6 liburu, disko bat eta argazki zaharren postal bildumea jasoko ditu BEGITU Lagun barriak, tartean sano arrakastatsua izan dan eta dendetan topetea gaxa dan *Arratia Inguruko Hiztegia*. Gainera urte osoan liburu, CD, txakoli, zine, eta ikusizun sarrerak eta kultur produktuak zozketatzen dira.

LEMOA

"Etxea da hizkuntzea transmitiduteko bide natural eta eraginkorra"

Erredakzioa

Lemoako Euskera Zerbitzuak umeen hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskerea indartzeko gurasoai zuzendutako ikastaro batzuk antolatu ditu. Olatz Elejabarrieta ikastaro honeen irakasleak erantzun ditu BEGITUREN itaunak.

Ikastaroak gurasoai dagoz zuzenduta. Ikastaro horretan parte hartzean daben gurasoak euskaldunak ala erdalunak dira? Euskeraz jakin eta egiten dabenai, ala euskeraz jakin eta egiten ez dabenai edota jakin ez baina ikasi gura dabenai ala jakin ez eta ikasteko asmorik ez daukienai dagoz zuzenduta?

2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako umeen gurasoai zuzenduta dago ikastaroa, gurasoak dira-eta, duda barik, seme-alabak euskera ikasi dagien giltza. Izan be, etxea da hizkuntza transmitiduteko bide natural eta eraginkorra. Seme-alabak euskerea ondo ikastea gura badogu, abiapunturik onena jaiotzen diranetik etxean euskerea eskeintzea da.

Hori dala eta, Udaleko Euskera Zerbitzuak ikastaro bi antolatu ditu: bata, euskaldunentzat; eta bestea, erdal-dunentzat. Batetik, umeen hizkuntza-ohituretan eragiteko; eta bestetik, seme-alabakaz euskeraz berba egin, jolastu eta abesteko aukerea izateko. Ikastaroak batera gurasoai bitarteko desbardinak emongo jakiez, etxean be euskeraz egiteko lagungari izateko.

Zenbatek emon dabe izena?

Euskerazko ikastaroan zortzik eta gaztelerazkoan hamaikak.

Pentsetan dot umeen ohituretan eragiteko, gurasoen ohiturak be aldatu beharko dirala eta hori gaxa da...

Motibazioa landu, bitartekoak eskura ipini eta posible dala erakutsi behar jakie. Hori ez da ikastaro baten lortzean, baina aurrera pausu bat da. Bide luzea daukagu egiteko, baina guztion artean eta alkarlanean lortuko dugu.

Eta umeen zein ohituran eragin gura dozue? Hau da, zein esparrutan gura dozue euskerara jo dagiela gurasoen bitartez?

Eguneroko edozein egoeratan; hau da, pozik, triste, haserre... dagozanean; olgetako, abesteko, maitatzeko, mosu emoteko, irakurteko, ikasteko, komuniketako...; etxean, parkean, kalean, familian, lagun artean...

Pausuz pausu hasi behar garala badakigu, eta aurretik esandako moduan, bidea luzea izango da. Ikastaro honetan olgetako, abesteko eta ohiko egoeretan komuniketako

bitartekoak emon jakiez, dakianak dakiana erabilteko eta ez dakianak apurka-apurka ikasteko.

Ze metodologia erabilten dozu?

Ordu biko saioa dala kontuan hartuta, dinamikoa izan behar dau. Metodologiak hiru zutabe daukazala esan daitegu; parte hartzaileen arteko esperientzien trukaketa, oinarritzko kontzeptuen lanketa eta baliabideen ezagupena.

Modu berean, garrantzitsua da euren beharizanetara moldatzea; landu behar diran eduki horreek euren bizi daben errealidadera moldatzea.

Dinamizatzailea eta euskera teknikaria izan gara saioak dinamizatu doguzanak.

Arratiatik kanpo egin dira ikastaro honeek? Ze emoitzagaz? Urtxintzak emoten dauz, ezta?

Bai. Urtxintzak hainbat ikastaro eskeintzen dauz jolasa eta euskerearen trasmisioa buztartuten dabezanak. Euskerea da gure heziketa ereduaren oinarrietako bat eta jolasa da gai desbardinak lantzeako erabilten dogun metodologiaren beste oinarrietako bat.

Jolasa hizkuntzearen trasmisioan eta baita beste baloreen trasmisioan be tresna eta bitartekari ezin hobea da, horregaitik garrantzitsua ikusten dogu bai guraso eta hezitzaileak horretan trebatzea, euren dirata umeen erreferente nagusiak.

Ikastaroek aparte liburuen argitalpenak be egin dauz Urtxintzak, beti be guraso eta hezitzaileentzako baliabideak sortzeako asmoz.

Zure ustez, etorkizuna euskalduna izango da?

Euskera hizkuntza bizia da, baina ahula bere egoerea, eta sano kezka-garia lurralde batzuetan. Horregaitik, Lemoako Udaletik euskera babestu eta bultzatzeko neurriak ezartzen gabiz, baita norbanako eta erakunde guztiak euskera ikasi eta erabilteko bideak erretzen be.

Euskerak euskal herritarrok alkarregaz biziteko hizkuntza izan behar dau: alkarri berba egiteko, alkar entzuteko eta alkar ulertzeko hizkuntza. Euskera dakianak ikasi gura dauanari irakatsi, ulertzen dauanak berba egiten dauanari erabilteko aukerea emon eta agintariak herritarrai ikasteko bideak erretzu behar deutseez. Danok daukagu gure egitekoa. Euskerea danona da, danon eskubidea eta danon ardurea.

Beraz, euskerea gure herrian daukagun ondarea danez hori jagon eta errespetetako baina, batez be, bizirik iraunarazoteko guztiok erantzukizuna eta ardurea hartzean badogu, bai, etorkizuna euskalduna izango da.

ZIKLO-KROSA

"Hemengo jentearen faboritoak" egongo dira Igorreko ziklo-krosean

Aurten, Igorreko ziklo-krosa ez da Munduko Kopako lasterketea izango baina aurreko urteetako formatoa mantenduko dau. Euskadi Sari Nagusia izaten jarraituko dau Igorreko lasterketak, "Euskal Herriko lasterketarik inportanteena" antolatzaileen esanetan. Erlantz Uriarte edo Naia Alzola egongo dira bertan, beste batzuen artean. Lasterketak Olabarriko zirkuituan izango dira eta EITBk transmitiduko dauz.



atzera be bueltetako Lehenengo Mailara, ze antolakuntza aldetik sano maila ona itxi dogu" dino Zurinagak.

Historia

"Igorre eta Dimako Intxaurbizkar inguruan, Elgezua izeneko auzune txikia dago. XI. gizaldian, Santa Lutziko basiliza eraigi zan lekua. Auzunea San Kristobal izenagaz ezaguna egin da, izan be aitaturako santua be gurtu egiten da bertan.

Auzoko jai batzordeak Intxaurbizkar Kultur Elkarte legez ezagunak, gazte mailako lasterketa bat antolatuten eban, garagarriko jaietan: "San Kristobalera Igoera" izenekoa.

Asfalto arazoak eta trafikoko agintarien ezetzak, Marcos Gerediaga SC Amorebietako presidentearen berbakaz batera, jai batzordeak 1977. urtean lehenengo Ziklo-kros San Kristobal, Igorre antolatuko eban.

1980. urtean Arratiako hainbat txirindularizalek, eta Igorreko ziklo-krosaren "erruz", Arratiako Ziklista Elkarte sortu eban. Alkarte hau eta Intxaurbizkar Kultur Elkarteak lagunduta, lasterketearen antolaketaz arduratu ziran.

San Kristobalgo zirkuitua "Ziklo-krosaren Katedrala" Igorreko herri barrutik hiru kilometrotara dago. Ikusleak zirkuituaren edozein puntutatik, lasterketa osoa ikusteko aukerea dauka. Bertan egin dira hamazazpi edizino. 1993. urtean lasterketea Munduko Kopan sartzeak, Olabarriko zirkuitura aldatu beharra ekarri eban. Olabarriko hau herri barruan dago eta antolaketarako azpiegitura hobea dauka, nahiz eta ikuslearentzat hain ikusgarria ez izan. San Kristobalgo auzune txikiak, bizia emon eutsan eta hazten ikusi eban. Igorrek izena emon, eta bere etorkizunaz arduratzen da Olabarri". Holan kontetan dabe lasterketa honen historia AZEkoak.

Dana dala eta esandako moduan, ez zan izan hau Munduko Kopan egoteko baldintza bakarra. Lasterketa gehiago be egin behar ziran eta holan 2007tik aurrera masterren lasterketea egiten hasi ziran antolatzaileak Igorren. Munduko Kopako araudia beteteko, dana dala, beste lasterketa bi falta ziran oraindino eta horrek eskatzen eban gastuari aurre ezin eginda, Munduko Kopako txapelketea itxi egin eban Igorrek.

Dana dala, urte honeetan guztietan Igorre ziklo-krosaren erreferente izan da. Hemen egon dira Kevin Pauwels, Sven Nys edo Zdenek Stybar. Eta orain honeek Erroman korriduko daben arren, ez da izarik faltauko Olabarriko zirkuituan.

Erredakzinoa

Akaso munduko onenak ez dira Igorren izango, aurreko urteetan legez, honeek Munduko Kopako lasterketa bat daukielako. "Munduko Kopan, nazino bakotzeko selekzioak egon behar dau. Nazino bakotzak bialtzen ditu onenak eta derrigortuta dagoz parte hartzera. Guk aurten egin doguna da 8-10 txirindulari atzerritar on ekarri gure aurrekontua kontuan izanda" azaldu deutso BEGITURI Ander Gorospe Arratia Ziklista Elkarteko idazkariak.

Dana dala, aurtengo eta aurreko urteetako lasterketen artean, alderik handiena diruan dagoala dino Juan Mari Zurinaga AZEko presidentea. "Lehen aurrekontua 100.000 eurokoa bazan, orain 30.000 eurokoa da. Horregaitik geratu ginan Munduko Kopatik kanpo, dirua ez jakun heltzean eta". Izan be, Munduko Kopako araudia betetzeko gitxienez lasterketa bi gehiago antolatu behar ziran eta diru arazoak dirala-eta, ezinezkoa izan zan hori Arratia Ziklista Elkartearentzat. Lau urte eroiazan Erromak Munduko Kopako lasterketa bat lortu guran eta berak hartu dau Igorrekoa.

Lehia handia

Munduko Kopan parte hartzean dabezanak ekarri ez arren, lasterketa polita izango dala uste dau Ander Gorospek. "Ekarriko doguz hemengo txirindulariak baino maila apurtxo bat handiagoa daukienak, eta podium-ean jentearen faboritoak egon daitezke" dino. Naia Alzola Dimakoa, Egoitz Murgoitio, Opel Ibaiganeko Erlantz Uriarte edo Javier Ruiz de Larrinaga izango dira Igorren eta horreek dira hemengo jentearen faboritoak. "Dana dala, Munduko Kopan ikuskizunik handiena Belgika, Eslovakia eta Frantziako txirindulariak dira eta herrialde horreetako maila oneko 9 ziklo-krosari be etorriko dira Igorrera. Igorrek nazinoarteko mailan bere lekua galdu ez daian".

Aurtengoa, Igorreko ziklo-krosaren XXXVI. edizinoa da. Hasikera-hasikeratik dagoz Juan Mari Zurinaga eta Ander Gorospe. Erreleboa behar dabela dinoe ziklista alkarteko beteranoak Igorreko ziklo-krosak iraungo badau. Gainera "hemendik hiru edo lau urtera eukiko bagendu dirua gauza handi bat egiteko, ez litzateke problemarik egongo

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

ASESORIA Gorbeialde

Juridika · Fiskala · Lanekra · Kontularitza

Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Zugaitik BEGITUten dogu

A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakoentzat elkagaiak
estelizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

begitu 10 urte

Lasterketen ordutegia

Igorreko ziklo-krosak Euskadi Sari Nagusia eta nazinoarteko lasterketea izaten jarraituko dau. Izan be, Gazteak kategoriako gizonezkoen lasterketea Euskadi Sari Nagusia da eta 11:30ean izango da. Kategoria horretako andrazkoak, 09:45ean lehiatuko dira.

Haxe da lasterketen ordutegia:

09:00etan, Kadeteak.

09:45ean, Senior, Master eta Gazte kategoriako andrak.

10:45ean, sari banaketea.

11:30ean, Gazteak gizonezkoak. Euskadi Sari Nagusia.

12:30ean, Elite eta 23 azpikoak.

13:30ean, sari banaketea.

Erlantz Uriarte igorreztarra podiumeko postuetan Kantabria eta Asturiasen

Julen Bilbao

Arratiako ziklo-krosariak Euskal Herriko kanpo ibili dira zemendiaren bigarren hamabostaldian; Kantabrian eta Asturiasen. Izan be, hila- ren 18ko Zomtzako proba Kadete eta Junior kategoriakoentzat baino ez zan.

Zemendiaren 17an izan zan Colindresko ziklo-krosa. Zapatu haretan ez eban euririk bota Elite kategoriako lasterketa hasi arte, eta orduan be gitxi bota eban. Arratiarrak ohiko maila altua erakutsi eben hango zirkuitu siku, tekniko eta ari- nean. Holan dala, Erlantz Uriartek hirugarren egin eban Elite kategori- an, azkeneko metrora arte iraun eban norgehiagoka zirraragarri baten ondoren. Eta goraiatzekoak dira baita be Julen Zuberoren zazpi- garren postua eta Alberto Hierroren hamabigarrena. Bestetik, 23 urtetik beherakoetan, Mikel Kareagak lasterketa polita egin eban eta zazpi- garren amaitu eban.

Dana dala, Kantabriako proban arratiarren arteko indar neurketarik bardinduena Master-30 mailan izan zan. Mikel Epalza eta Mikel



Nuñezen arteko lehia Epalzak hirugarren egin eban. Nuñezek, os- tera, arazo mekanikoak izan zituan eta atzean gelditu zan; dana dala, modu ikusgarrian aurreratu zituan postuak eta, azkenean, seigarren egin eban. Eta antzera ibili ziran horreek biak Asturiasko proban, domekan. Izan be, La Morgale- ko ziklo-krosean barriro be sano emoziozantea izan zan Epalza eta Nuñezen arteko norgehiagokea, eta asteburuko bigarren aukera ho- rretan Epalzak laugarren egin eban, eta Nuñezek, barriz, seigarren.

Erlantz Uriarte bigarrena Astu- riasen

Esan dogun lez, Arratiako ziklo-kros- lariak Asturiasen batu ziran zemen- diaren 18an. Zoritxarrez, bezperan euri asko egin eban, zirkuituaren

kalterako eta gure txapeldunen buruko minak handitzeko. Kuriosoa izan zan La Morgaleko zirkuitua. Alde batetik, tekniko baina buztin- tsua zan; eta bestalde, lupetz uga- riaz gainera, harea be baegoan zati batzutan. Hori dala eta, asko sufridu eban Erlantz Uriartek bigarren pos- tua eskuratzeko. Denporaldi itzela dabil egiten igorreztarra.

Atsedendaldi labur baten ondo- ren, Euskadiko txapelketako proba dezente egingo dira abenduan. Hi- laren 9an Igorren eukiko dabe zita inportantea ziklo-krosari guztiak; baina aurretik, gogor ekin beharko deusie danak Amezagaren abendu- aren 1ean, Legazpin 2an; Asteasun, 6an; eta Itsasondon, 8an. Beraz, begira gagoz ea gure kirolariak etxean espektakulo eder bat eske- intzen deuskuen; seguru baietz.

XII. Zeberioko ziklo-krosa

Erredakzioa

Zeberioko ziklo-krosaren XI. edizi- noa 2010ekoa izan zan. Igaz ez zan ziklo-kros lasterketarik egin antolatuteko diru arazoak egon zi- ralako. Aurten, baina, Ugao Txirrin- dulari Elkarteak antolatuten dauan Zeberioko XII. Ziklo-krosa izango da hilaren 16an.

Igorreko ziklo-krosaren hurren-

go domekan, Zeberion Kadeteak, Junior eta andrazko kategoria guz- tiak neurtuko dira. Probak goizeko 11:00etan hasiko dira Sautuolaba- rri auzunean eta bertan amaituko.


Azken edizino haretan, Opel Ibaiganeakoak nagusitu ziran an- drazko kadete kategorian. Izan be, Karina Aguilera irabazi eban eta Irati Intxaurragak bigarren egin eban.

BESTE EDUKIONTZI BAT GURE LURRA JAGOTEKO!

Badator edukiontzi marroia, bosgarrena. Prestatu bako landara-hondakin gordi- nentzat. Adi egon eta lagundu eiguzu gure lurra jagoten. Informa zaitez!

ZAINDU GURE LURRA, MARROIA ERABILI.

INFORMAZIO GEHIAGO: www.arratia.net · 94 631 17 17 · 608 950 133



ERRUGBIA

Zekorrak, lehen faseko lehenak



Arratiko Zekorren partidu bat San Txismen.

Ainhoa Duñabeitia

Lehen faseko partiduak amaitu dira eta zekorrak lehen postuan amaitu dabe.

Zazpi norgehiagoka jokatu dabez eta horreetatik bost irabazi. Fase honetako lehen lau postuetan amaitu dabenak, bigarren faserako txartela daukie. Gureak 27 puntu lortu dabez, bigarrenari 7 puntuko aldea aterata. Arratiko Zekorrak, Elorrio, Getxo Artea eta La Unica izan dira lehenengo laurak.

Zemendiaren 24an, lehen faseko azken partidua jokatu zan, Igorreko San Txisme zelaietan. Partidu horretan Sport Tavern RC Rioja izan eben aurkari arratiarrak.

Errez irabazi eben etxeokak, partidua hasi bezain laster lehen entsegua egin eben eta. Jarraian beste guztiak etorri ziran, 7 guztira. Errioxarrak ez eben entsegu bakar bat egiteko aukerarik izan eta markagailua estreinau barik itxi eben. Partiduko azken emoitzea 41 eta 0.

Zekortxuen partidua oster goizean izan zan, hau be San Txismen. Pegamo Bera Bera errugbi taldearen kontra jokatu eben eta entsegu bi lortu ebezan arren, 12-29 galdu eben. Denporaldi honetan momentuz, 6 neurketa izan dabez eta horreetatik bat baino ez dabe irabazi.

RAID

Xegiba talde arratiarra txapeldun I. Columbia Raid Series ligan

Erredakzioa

Arratiako, Xegiba-Led Lenser-Zona Bike taldea, txapeldun izan da, Euskal Herrian lehenengo aldiz egin dan "Columbia Raid Series" ligan, proba bi irabazi eta beste bitan bigarren postua egin eta gero.

Taldeak bikote bi daukaz. Lehenengo bikotea, Gaizka Agirre eta Egoitz Beobidek osotuten dabena, izan da liga irabazi dauana. Ibai Pinedok eta Xabi Iturriagak osotuten dabena bigarren bikoteak, barriz, laugarren egin dau ligan.

Urte ona Arratiako taldeentzat

Urte amaiera ezin hobea izan da Xegibarentzat. Liga irabazteaz aparte, urrietan Cangas

de Onisen jokatu zan Picos de Europa rai-dean, bigarren postua lortu eban. Arratiako beste hiru taldek ligako bost probatan hartu dabe parte: Areatzako Lamino Raid taldea, Jokin Garriga eta Ibai Milikuagaz; Artea-Indusiko Artindu taldea, Aitor Ormazabal eta Carlos Mangasegaz; eta Arteako Antxintxiketan taldea, Iñigo Ramos eta Asier Osinagagaz.

Datorren urtean, Xegibak Arratia Raid-aren bigarren edizioa antolatuko dau. "Lan ikaragarria egiten gabiz, leku politak, proba barri eta espezialak sartzeako gogoz" dino Xabier Iturriaga Xegibakoak eta Arratia Raid-eko antolatzaileak.



Iturriaga, Agirre, Beobide eta Pinedo.

Gabonetan Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun * Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€
edo 75
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

FIXMI
KODIDENDA JAIONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tlf : 94 612 02 41
Fax : 94 612 02 46
fixmikopi@gmail.com

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Galtia banatzaile ofiziala

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DEBU KONTSULTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUTAN

Saldu Artea, 5/Plaza 94 673 11 41 - Fax: 94 673 04 05 - 48140 IGORRE

axular
kultur elkarte

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERI ETXEN BAZOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

FUTBOLA

Aste txarra Arratiarentzat

Clara Luja Azpiri

Arratiako gizonzkoen taldeak galdu egin eban bi eta bat Aranguren taldearen kontra jokaturako partidua. Zemendiaren 24an jokatu zan eta Zallakoak irabazi eutseen Arratiako gol baten aldeagaz. Aurreko partidua, barriz, zemendiaren 17an jokaturakoa, Union Sport San Vicenteren kontra, bina bardindu eben.

Sailkapenean hamargarren postuan dagoz. Hamaikagarren jardunaldi honetako emoitza hiru dira galdutako partidua, bost bardindutakoak eta hiru irabazitakoak. Hurrengo partidua Igorreko Urbietan zelaian izango da, Basurto A taldearen kontra, abenduaren 1ean, arrastiko bostetan.

Arratia futbol taldeko andrak

Euskal Ligako bederatzigarren jardunaldian Arratiak hiru eta bi galdu eban Barakaldo Futbol Klubaren kontra. Honegaz hiru dira denporaldi honetan galdutako partidua, bost irabazitakoak eta bat bardindutakoa. Azken aurreko partidua, barriz, Touring KE taldearen kontra jokaturakoa bost eta bat irabazi

ESKALADEA

Itziar Zabala txapeldun



Itziar Zabala.

Erredakzioa

Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak Euskal Herriko bulder eta sailtasun txapelketak jokatu zituan zemendiaren 20an Aretxabaleta eta Donostian. 20 urte artekoen kategorian txapela lortu eban lehen aitaturako modalidade bietan.

eben arratiarrak. Azken bost jardunaldietan hiru irabazi eta bi galdu egin ditue eta sailkapenean laugarren dagoz. Hurrengo partidua Tolosa FC taldearen kontra izango da, abenduaren 1ean Igorreko Urbietan zelaian, arrastiko zazpirak eta laurdenetan.

AIZKOREA

Aitzol Atutxa dimoztarra laugarren Euskal Herriko buruz burukoan

Erredakzioa

Laugarren egin eban Atutxa II.ak Arbizon (Nafarroa) jokaturako Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketaren finalean. Txapela Floren Nazabal nafararentzat izan zan. Dana dala, dimoztarrak hobetu eban bere igazko postua: igaz bosgarren eta aurten laugarren egin dau eta.

Gipuzkoako lau aizkolari: Olasagasti, Azurmendi, Otaño eta Otaegi, Nafarroako bat: Nazabal eta Bizkaiko beste bat: Atutxa neurtu ziran. Aizkolari bakotzak lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko enbor moztu behar izan eban. Txapeldunak 39 minutu eta 13 segundotan gelditu eban erlojua. Dimakoak, barriz, 44 minutu eta 24 segundo behar izan zituan beharra amaituteko. Arratiako baztar guztietatik jente partidea joan zan dimoztarra animatzeraz.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2012-2013

musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika, jostailu eta jokoak

www.katalogoa.org

Euskarazko Produktuen Katalogoa haur eta gazteentzako ehunka produktugaz bananduko da Igorren eskolan eta institutuan. Kultur etxean be eskuragarri egongo da.

Lehendakari Agirre, 11 - lorja 3 - 48140 Igorre - tel. 94 631 99 40

erropa dendea

GALANTA

Bametik janzteko Zugandik sano hurbil

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

Ebaki deskontu bonoa eta erdu Galantara!

GALANTA
DESKONTU BALEA **5€**
Epea, abenduak 15era arte
40€tik gorako erosketan

GALANTA
DESKONTU BALEA **10€**
Epea, abenduak 15era arte
50€tik gorako erosketan

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

expert **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
919 736 616
48140 Igorre Bizkoa

HERRIKO BENTÄ

HOSTAL

HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (BIZKAIA)
Tel. 94 631 72 56

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Btxelergoak, Hezkuntza zikloak

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala Bilbon hilaren 15ean**Erredakzioa**

550 lagunetik gora batu ziran zemendiaren 18an Basauriko Artunduaga kiroldegian Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurrea bertarik bertara jarraituteko. Saio hareri esker Arkaitz Estiballesek finalerako zuzeneko txartela lortu eban eta gainontzekoak puntuazioaren arabera izango dabe horretarako aukerea. Iñaki Iturriotz arratiarrak ez dauka finalerako heltzeako aukerarik.

Bigarren finalaurrekoa Duran gon egin zan Landako gunean hilaren 25ean eta han Etxahun Lekuek atera ebazan puntu gehien. Hurrengo eta azken kanporaketea Gernikako Jai-Alai frontoian egingo da abenduaren 2an, arrastiko 17:30ean eta honiek dira parte hartuko daben 6 bertsolariak. Beñat Ugartetxea, Ibon Ajuria, Iratxe Ibarra, Joseba

Artza, Miren Amuriza eta ama dimoztarra daukan Peio Ormazabal. Saio horren ostean jakingo dira zeintzuk izango diran Estiballes eta Lekuegaz batera finala jokatu daben beste 6 finalistak. Gogoratu finalaurreko irabazleak zuzenean doazela finalera eta beste 5ak puntuazioaren arabera sailkatuko dirala.

Finala abenduaren 15ean, 17:30ean Miribillan jokatu da. Aurkezleak Zuriñe Iarritu eta Bernardo Mandaluniz izango dira. Sarrerak interneten erosi daitezke eta Gernikako 3. eta azken finalaurrean be.

Puntuazioa

Arkaitz Estiballes	596
Onintza Enbeita	523
Oihana Bartra	509
Eneko Abasolo	489.5
Gorka Lazkano	469
Iñaki Iturriotz	448



Basauriko saioko bertsolariak.

Argazkia: Iñigo Azkona.

BEGITU 10 URTE

Edade guztietako andrak egingo dabe kirola BEGITUREN eskutik**Erredakzioa**

BEGITUREN hamar urte, hamar herri, hamaika ekintza kanpainaren barruan, abenduaren 15ean, andrazkoentzat bazkaria, ezagutza jolasak eta kirol rally-a antolatu dau BEGITUK Bediako Udalaren laguntzeagaz frontoian. Kirolak sokatirea, txokor batzea eta ugela izango dira.

"Deialdia andrazkoai luzatu deutsegu, baina gizonezkoai ez deutseguz atek zarratuten" dino Cristina Ruiz antolatzaileetakoak. Izan be, Zeanurin Emakumea eta Kirola mahai-inguruaren arrakastak ikusita eta gaiagaz segiduteko,

Bedian kirol proba batzuk antolatutea pentsau eben Zertukoak. "Protagonismoa andrak izatea gura genduan, horregaitik luzatu jakie eurei deialdia. Andrak alkar ezagutzea eta giro onean ondo pasetea dauka helburu ekintza honek". Jokoak edade guztietako jentek egiteko modukoak dira eta parte hartzeako Bediako liburutegian emon behar da izena hilaren 10a baino lehenago.

begitu 10 urte

LEHIAKETAK

Gabonetan lehiaketa ugari

Udalak herritarren kolaborazioa erabilten dabe

Gabonak zorionduteko postalak edo egutegiak egiteko.

Erredakzioa

Hori dala eta, marrazki, argazki eta beste lehiaketa asko antolatuten dira. Holan, Bediako Udalak herritarren postalen bitartez zorionduko ditu Gabonak eta Areatzakoak argazki lehiaketa bat antolatu dau 2013 urteko egutegia egiteko.

Areatzako Argazki Lehiaketea

Areatzako lehiaketan Arratiako edozein adinetako herritarrek hartu daikie parte. Argazkien gaia Areatzako arkitektura izango da eta gehienez hiru argazki bialdu ahal dira personako abenduaren 17a baino lehen areatzakoudala. areatza@bizkaia.org helbide elektronikora. Argazkirik onenakaz 2013ko

egutegia egin eta salgai ipiniko da. Argazkirik onenak izango dauan saria, Aldamin jatetxean persona birentzako bazkaria izango da. Sari banaketea abenduaren 28an izango da Areatzako plazan

Bedian aukeratu ditue postalak

Iraia Lekue, Maialen Gil eta Marrije Etxebarriaren marrazkiakaz ilustratuko postalen bitartez zorionduko dauz Gabonak eta Urte Barria Bediako Udalak. Izan be, eurak irabazi dabe Udal Liburutegiak antolatutako Gabonetako Postalen Lehiaketea.

Lehiaketara aurkeztutako marrazkien erakusketea ikusgai dago liburutegian abenduaren 12ra arte.

Lemoako Gabonetako Marrazki lehiaketea

Lemoako umeak Haurrentzako Gabonetako VII. Marrazki Lehiaketan hartu ahal dabe parte. Lanak "Gabonak" gaia izango dabe eta abenduaren 5a arte entregatu daitezke ludotekan. Sari banaketea abenduaren 13an, 18:30ean ludotekan izango da.

Lemoako Gabonetako Haur eta Gazteen Ipuin lehiaketea zabalik

Lemoako haur eta gazteen Gabonetako ipuin lehiaketa hamabigarren edizinora heldu da aurten. Lemoan bizi edo ikasten daben 18 urte baino gutxiagokoak hartu daikie parte eta lanak urtailaren 25era arte entregatu daitezke Udal Liburutegian. Sari banaketea 2013ko zezeilaren 21ean izango da, arrastiko 18:30ean, ludotekan. Saria material didaktikoa izango da eta parte-hartzaile guztiak diploma bana jasoko dabe. Saritutako ipuinak liburu baten eta Udaleko webgunean argitaratuko dira.

BERBALAGUN

Berbalagun martxan**Erredakzioa**

Abenduaren 14an abiarazoko da Arratiako Berbalaguna. Zemenditiki bagilera bitartean euskaldun bariak eta euskaldun zaharrak alkartuko dituan proiektua aurkeztuko da Dimako gaztetxean. Arrastiko 19:00etan izango da eta antolatzaileak esan dabenez sorpresa bat edo beste egongo da. 2009an sortu zan Arratiako Berbalagun proiektua "euskerearen erabilera soziala bultzatzeko eta euskaldunen sarea indartu eta sendotzeko helburuagaz" dinoe arduradunak.

Berbalagun, astean gitxienez ordubete talde txikitian euskeraz berba egiteko aukerea emoten dauan proiektua da. Berba-talde txikitian bananduten dira parte hartzaileak eta taldeak berak ebazten dau zein egunetan, non eta ze ordutan alkartu. Edadea, zaletasunak eta ordutegia izaten dira taldeak osotuteko erispide nagusiak. Euskerea modu sortzaile eta dinamikoan erabilteko aukerea emoten dau eta "modu horretan euskalduntze prozesua, prozesu aspergarri eta nekeza ez izatea lortzean da".

Herri bakotzak bere Berbalaguna kudeatzen badau be, urtean zehar ekintza bateratuak egiten dira Arratiako Berbalagunakaz. Izena emoteko edo informazioa jasoteko, Udaleko Euskera Zerbitzura deitu behar da.

ANTZERKIA

Hitzak antzezlan hilaren 1ean**Erredakzioa**

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguneke ekitaldien artean antolatu dau Igorreko Bardintasun Arloak eta Kultura Arloak antzezlan hau. Abenduaren 1ean, 20:00etan, Hika antzerki taldearen eskutik, *Hitzak* antzezlan egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Hitzak antzezlan, horrer buruz da. Berbai buruz. Berba zaurigarriez, berba iraingarriez, berba gitxiestzaileez... Berbak besterik ez. Eta berben artean gizonezko eta andrazko bat. Alkarrerik berbarik gozoenak esateko kapaz diran gizon eta andra bat. Berbak gozotasuna galtzean hasten

diran arte. Andreak, berbak asko maite dituan andreak, isildutea ebartziko dau. Bere onerako. Esaten dituanak aituteko kapaz ez dan persona bihurtu jakolako hainbeste maite ebana. Esan bako berbak be entzun egiten ditu ostera. Gura dauan ha besterik entzun gura ez dauanak ez dau-eta berben beharrik. Eta hori ezin eroangarri egiten jako. Eta berbez baliatuko da eroanezina adierazoteko. Berba gitxiestzaileez... Berbak besterik ez. Eta berben artean gizonezko eta andrazko bat. Alkarrerik berbarik gozoenak esateko kapaz diran gizon eta andra bat. Berbak gozotasuna galtzean hasten

Tratu txarrak? Ez. Ez derrigorrez... Txarto tratatuak, bai: eta horixe da tragedia askoren hasikerea.



Hitzak antzezlan.



LIBURUA

Zefe Ziarrustak poema liburu bat argitaratu dau

Erredakzinoa

Barrutik sentsazioen koloreak taupadaka izenburua ipini deuto argitaratu barri dauan liburuari dimoztarak. Bertan, 2010etik 2011ko negura bitartean idatzi dauzan poemak bildu ditu. Azkenengoa, lana zarratzen dauana, 2012ko urtailaren 7an sinatu dau egileak; BEGITUri esan deutan lez dataren sinbolismoagaz jokatu gura izan dau: "ohorez eta gurariz guztiai nire gomutak helarazo eta askatasun isuriaren aitortza modura edo".

Ziarrustak esperientzia propioetatik hasita idatzi dau liburua. Bere buruari planteatuko asmo nagusia barruan daukaguna adierazotea izan dauala dino egileak. Sakonera begirako lan horretan, idazleak senti-

mentuen inguruan jardun dau batez be: bestearengan islatuta topetan doguzan emozinoetan. "Baruko altxor" deitu deutanaren bila idatzitako testuak dira; liburua tonu liriko sentimentuai berben formea emoteko egin dauan lan horren frutua da.

Oriotan, bizitzaren errealidadea eguneroko detaile txikietan dagoa irakurri leikegu. Besteak beste, egileak egunen joanean garatzen doguzan sentimentuak askatu eta landuteko beharizana aitortuten dau.

Inguruak bakoxtaren izakeran daukan eraginean be sakonduten dau liburuko poema batzuetan. Inguru horrek elikatu egiten gaituala dino Ziarrustak, esperientziak norberaren sentimentuak lotuta

dagozalako. Harreman horretan, amestutako helburuak lortuteko hartzean diran bideak indarbaritu egiten gaituela dinosku.

Barrutik sentsazioen koloreak taupadaka, autoeditatuko liburua

Poema asko idatzitakoa da Zefe Ziarrusta. Berak dinoan lez, "atsegin eta erlajantea suertatzen" jakon zeregina da. Baina, orain arte, ez dau inoz planteau idatzi dauan materiala argitaratutea bere burua ez daualako sekula idazletzat hartu. Aurten, oster, liburua autoeditau eta argitaratutea ebatzi dau, egin dauan lana irakurteko gogoia euki daiketan edozeinen esku ixteko. Zentzu horretan, egileak pozik hartuko leuek irakurleen ereti eta sensazioak argitaratutako liburua ganean. Horretarako helbidea: zziarrusta@gmail.com da.

Liburua Dimako tabemetan eta Igorreko prensa-kioskoan dago salgai. Aurkezpen publikoa zemendiarren 30ean izango da, 20:00etan, Dimako Jentilzubi Herriko Tabeman.

BELDUR BARIK

Arratiako Beldur Barik sariak interneten dagoz ikusgai

Erredakzinoa

Guk ere indarkeria sexistari ez! eta Oilategia itxi bideoak jaso ebezan Arratiako mankomunidadearen Bardintasan Zerbitzuak emondako Beldur Barik sariak. Sari banaketea zemendiaren 23an izan zan Areatzan.

Guk ere indarkeria sexistari ez! eta 17 urte bitarteko kategoriako Elkar Ezagutuz programako gazteak egingadako lana da eta *Oilategia itxi* Igorreko

Roser Oller, Izaskun Urbaneta, Iñigo Zubizarreta, Estherlita, Alba Garrete, Janire Azkuna, Pili Alvarez, Oihane Iranguen eta Joseba Negoren lanak, 18



Beldur Barik lehiaketako sari banaketea.

eta 26 urte bitarteko saria jaso eban.

Miren Urresti Bardintasan zerbitzukoak aurkeztu eban ekitaldia eta Josune Gorospek, AUMeko presidentea eta Maite Artabe, Areatzako Emakume Forokoak emon ebezan sariak.

Bideoak Beldur Barik webgunean ikusi daitezke eta mankomunidadekoan be egongo dirala esan eban Urrestik.

LEHIAKETEAK

Sabin Intxaurren gutunak

Erredakzinoa

Sabin Intxaurren gutun lehiaketea antolatu dau Zeanuri Bizi Kultur eta Garapen Elkarteak politikari abertzalearen heriotzearen bigarren urteurrenean. Urteurrena abenduaren 27an beteten da.

Gutunon gaia Sabin Intxaurren bizitzagaz lotutakoak izan behar dira: abertzaletasuna, Gorbeia edo ekologia, esate baterako. Euskeraz idatzita egongo

dira eta gehienezko luzeera 2.500 karakterekoa da. Lanok zeanuribizi@gmail.com helbide elektronikora bialdu behar dira hilaren 20a baino lehenago.

Hiru kategoria egongo dira: 14 urtera arte; 15 eta 17 urte bitartekoa eta 18tik aurrerakoa.

Saria liburu elektronikoko bat izango da kategoria bakoxtan eta sari banaketea abenduaren 27an, arrastiko sei t'erdietan Zeanuriko Kultur Etxean.

DUNBA

Negua helduko da laster Euskal Herrira



Gorbeia.

Areatzako eskolako 2. zikloko ikasleak

Negua urtarorik hotzena eta gogorrena da. Negua heltzean herrietako giroa motelagoa izaten da, tenperaturakaitik, neguan hotz handiagoa egiten daualako, normalean baino.

Euskal Herrian, tenperatura, hotz handikoa izaten da. Horregaitik Euskal Herriko kobazulo gehienetan estalagmitak eta estalakitak sortzean dira, adibidez Anbotoko kobazuloan. Kobazulo honen barruan gitxi gora behera 0º azpitik egiten dau negua heltzean.

Euskal Herrian, neguan udan bai-

no, gitxi gorabehera, 17 gradu gitxiago izaten dira eta kasu berezietan, 20 gradu gitxiago.

Herri bajuenak 10 gradu gitxiago izaten dabe, eta altuenetarikoa 15 gradu gitxiago udan baino.

Areatzatik ikusita Gorbeia mendia edurrez estalita ikusten da, Gorbeia Parke Naturala izentau zan 1994an, 20.016 hektareako azalera beteten dau eta euskal probintzia biren artean zabaldua dago.

Klima atlantikoaren eta kontinentalaren arteko muga dogu Gorbeiko tontorra eta prezipitazioak ugariagoak dira Bizkaiko aldean Arabakoan baino.

Mendialdean 150 egunetik gora dira euria egiten dauanekoak. Eten barik ibiltzen dira haizeak eta batzue-



tan gogor jotzen dabe.

Arratiako bailaran tenperatura aldaketak ez dira gogorrak (5,5-18º c) eta nahiko tenperatura epelak izaten dira, itsasoa hur izateak dakarren eragin leungarriari esker. Klima, beraz, ona da, negu gozoakaz eta uda epelakaz.

Bihar badakizue zer eguraldi egingo dauan? Ez da erreza jakitea baina hurrengo esaldi honek behar bada zeozer lagunduko deusue.

"Azaroa hotz, negua motz, azaroa bero, negua gero".

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1	■						
2			■				
3				■			
4						■	
5		■					■
6	■						
7				■			
8					■		
9						■	

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Azken letrea. Mingots. 2.- Atadian, kanpoan. Kordela.
- 3.- (Atz.) Zenbaki bat. Ordaindu barik. 4.- Situ. Bokala.
- 5.- Konsonantea. Zein lekutara.
- 6.- Pitinka. 7.- Euzko Gaztedi. Larrapote. 8.- Kolore bat. Arsenikoa.
- 9.- Jausi. Bokala.

GOITIK BEHERA

- 1.- Zarpail. Ze, ezen. 2.- Tik-.... erlojuaren hotsa. Adio. 3.- Sufrea. Drakula. 4.- (Atz.) Femenino atzikia. Frantziako herrialde bat. Iridioa.
- 5.- Mamu. Bat erromatar.
- 6.- Ikondoaren fruitua. Bilera-agiria.
- 7.- Bare. Errez.

6	I	R	O	R	E	R	E	I	A	6	V	C	O	N	V	V	S	I	I		
5	S	V	A	R	I	Z	Z	I	S	5	N	O	S	D	O	I	O	K	I	Z	
4	A	V	R	I	O	I	G	I	B	4	V	I	R	O	V	I	O	X	Z	V	
3	K	A	P	U	R	K	A			3	N	O	D	O	X	M	H	V	V	I	
2	N	O	R	A						2	M	I	N	O	X	M	H	V	V	I	
1	E	O	B	A						1	I	N	O	X	M	H	V	V	I	O	
	R	O	Z	A	B	A					O	N	V	I	O	X	M	H	V	V	I
	Z	A	T	S	O	K	A				O	N	V	I	O	X	M	H	V	V	I
	I	N	A	M	I	N					I	N	A	M	I	N					
	7	5	3	2	4	6					7	5	3	2	4	6					

Topau ehizegaz lotuta dagozan zazpi gauzaren izenak.

O	S	E	G	U	K	A	R	I	A
K	O	L	P	E	K	A	R	I	A
E	Z	I	L	T	A	P	E	N	I
R	A	E	U	X	I	D	A	M	O
K	O	R	S	A	U	R	I	A	N
E	X	I	L	K	A	E	O	H	I
D	T	A	E	U	O	B	R	A	A
O	U	G	A	R	R	P	A	Z	K
R	T	X	A	R	R	I	E	U	E
E	R	A	M	A	K	O	R	T	A
B	A	Z	K	O	A	G	R	I	A
U	K	A	N	U	J	A	G	O	N
A	P	E	R	D	I	G	O	I	A
T	X	A	T	O	L	A	D	I	A
E	S	E	M	A	R	O	G	A	R

A KI MI KO

Zorrozkililo



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Anda, Los Chopos, 33 (Nagut) Tel: 94 630 48 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaita
zokutzejatetxea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxe. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Polig. Mendietako, 3 48530 LEMOIA Bizkaita
Tel. 090 482 930 • fax 609 260 207

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfñoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Babi • Ray • Aranda
• AYC • Guekater • Arandiga
• Gendole • Lail • Massana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 675 705 206
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARRAZ ZEIN ERDARAZ
Balnensk: A1, A, BTE, E
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaita)
garantxe@vostelnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskaintza zein ordaintza
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: unokau@euskaltel.net

ANE OLABARRI

"Ipuin bilduma hau gabonetarako erregalu itzela izan leiteke!"

Ane Olabari euskera arloko arduraduna da Urtxintxa Eskolan.

Titireroen ipuinak izeneko ipuin bilduma bat argitaratu dabe, eta Areatzakoa proiektu honen koordinatzailea izan da. Balioetan oinarritutako zortzi ipuinez disfrutatuko errea eukiko dogu lan honeguz. Ipuinok, zortzi euskal idazle ezagunek idatzitakoak dira; Miren Amuriza, Jasone Osoro eta Pako Aristi tartean. Proiektu hau sano desbardina da, besteak beste, zeinu hizkuntzak, Brailleak edota proposamen didaktikoak be lekua daukielako bilduma honetan. Inklusibidadearen aldeko apostua dala azaldu deutsu BEGMURI eta asmoetako bat, Euskal Herriko ume guztiakana heltzea dala.

Irati Urien

Titireroen ipuinak. Zelan sortu da ipuin bilduma hau?

Sanitan, merkaduan zenbait balio euskeraz lantzeako baliabide falta dagoala adierazten deuskue; batez be, guk transmitidu gura doguzan balioak lantzeako: parekidetasuna, kulturartekotasuna eta euskera, beste batzuen artean. Hori dala eta, holako eskaerak dagozanean eta merkaduan gabezia edo behar horreei erantzuteko aukera gitxi dagoanean, materiala geuk sortzeari ekiten deutsagu. Hor-tik sortu ziran balioetan oinarritutako ipuin liburuaren idea eta premina.

Noren ekimena izan da?

Bizkaiko Urtxintxa Eskolarena. Urtxin-

txa Eskolan lan talde bat sortu zan proiektu hau martxan ipinteko.

Zer topauko dogu bertan?

Balioetan oinarritutako zortzi ipuin dira, urte sasoi bakotzeko bi. Euskal kulturako persona eta idazle ezagunak idatzi dabez ipuinok. Landuten diran balioak parekidetasuna, kulturartekotasuna, alkartasuna eta euskera bera dira, besteak beste. Ipuin bakotzak bere proposamen didaktikoa dauka, helduak umeakaz batera landuteko. Argitalpenak audio disko bat daroa eta bertan ipuinak kontautu ageri dira; ipuinak edozein lekutan entzuteko, ipuinak zelan kontautu ikasteko eta persona itsuak be ipuinez gozatu ahal izateko. Horretaz aparte, DVD bat be badago eta ber-

tan ipuin bakotxa zeinu hizkuntzan kontautu ageri da. Zeinu hizkuntza erabilten daben zortzi persona gorrek kontautu dabez ipuinak, bakotzak bat. QR kodeen sistema barritzailea be badauka liburuak, ipuinak orrialdez orrialde zeinu hizkuntzan ikusi ahal izateko. Azkenik, ipuinak bra formatu- ra pasau dira eta Braillez inprimiduteko aukerea dago Urtxintxa Eskolaren webgunetik deskargauz.

Bestelako ipuin bildumetatik desbardina da hau. Zergaitik?

Oraingoan, Urtxintxa Eskolan inklusibidadearen aldeko apostua egin dogulako eta Euskal Herriko ume guztiertzako materiala argitaratu dogulako. Inportantea irudituten jaku entzumen eta ikusmen urritasuna daukienai be ipuin zoragari honek gazatuteko aukerea emotea.

Norentzat da?

Euskal Herriko persona guztiertzat. Bai umeentzat eta bai gurasoentzat, ikasleentzat, hezitzaileentzat zein umeakaz egoten dan edozeinentzat. Helduak umeakaz batera erabilteko pentsautu dago, eta helduak ipuinak kontetan eta landuten ikastea be helburuetako bat da. Berez ez dogu adinik markau, ipuinak umeai jaioten diranetik kontautu ahal jakiez eta. Hezitzaileen esku geratuko da ipuin kontaketea adin bakotxera zelan moldatu. Etxean, eskolan zein aisialdiko eremuetan erabilteko egokia da.

Gaur egungo errealidadera ez dirala egokituten eta, ipuin askok transmitiduten dabezan balioak ez ei zatozie bat. Zeintzuk dira balio horreek?

Honetaz luzaroan berba egin geinke, adibide asko dagozalako baina batzuk aitautu dodaz. Ipuin askotan andren eta gizonen rolak oso markautu ageri dira, adibidez neska erizain edo irakaslea eta gizona suhiltzailea edo gidaria. Horretaz aparte, gizezkoak



ausartak, salbatzaileak, seguruak izaten dira ipuin askotan eta andrazkoak pasiboak, bildurtiak, zaintza lanari lotuak... Bestetik, ipuin gehienetan ez dira gaur egungo familia ereduak erakusten: bi aitadun familiak, ama bakarrik daukienak... Erabilten diran irudiak be gauza asko transmitiduten dabez, adibidez ez dira beste kultura batzuetako personak agertzen eta agertzen badira estereotipoz beterik agertzen dira; txinatarrak horiak, adibidez. Gure eretxiz, oso inportantea da honek gauzonek jagotea, ipuinak umeen garapenean eta heziketan eragin handia daukie eta.

Titireroen ipuinak, horreei bueltea emoten hasteko tresna gisa hartu geinke?

Badagoz guk bultzatuten doguzan balioak eta zeharkatzen dabezan beste ipuin eta baliabide batzuk be merkaduan, ez gara lanketa hau egiten daben ez lehenengoak ez bakarrak. Liburu hau beste tresna bat gehiago da guk transmitidu gura doguzan balioak landu gura dabenentzat.

Zelango esperientzia izan da behar hau egiteko garapena?

Ni proiektu osoaren koordinatzaile lanetan ibili naz eta lan handia izan da, urtebetera luzatu da azkenean.

Baina oso polita eta aberasgarria izan da prozesu osoa. Jenteak ilusino handia ipini dau honetan eta pilo bat ikasi dogu.

Jenteak zelan hartu edo hartuko daualakoan zagozie?

Orain dala gitxi hasi gara zabalpen kanpaineagaz eta momentuz jenteak egin deutsan harrerea oso ona izan da. Ondo balorau da, batez be barritzailea dalako. Zeinu hizkuntzea eta Braille sistemea euskeraz lantzearena be inportantea izan da askorentzat, euskeraz ez dagoalako holako material askorik. Ipuinak eta ilustrazioak be asko gustau dira, nahiz eta berez umeentzako izan, nagusiak be sano gustora irakurri dabez.

Titireroen ipuinen dinamizazioak egiten be hasi zarie, ezta?

Bai, ludoteka eta eskola batzuetan. Bi orduko saioak dira, ipuin kontaketea eta honeguz lotutako jolasak eta tailerrak biltzean dauzana. Honek be itzeleko harrera ona euki dau. Saio honek herietan, ludoteketan, eskoletan, udalekuetan... eskeintzeko asmoa daukagu.

Durango Azokea bertan dago. Salmenta ona espero dozue?

Hori espero dogu. Azokan bertan be liburuaren aurkezpena egingo dogu eta ia jentea liburuaren erosten edo behintzat ezagututen animetan dan. Ipuin bilduma hau Gabonetarako erregalu itzela izan leiteke!

Aurrera begira, liburu honen ezaugarriaren obra barriak sortuteko asmoa daukazue?

Orain arte, kulturartekotasuna, bizikidetzeta, parekidetasuna, euskera eta beste hainbat balio landuteko materialak sortu doguz; bai liburuak, eta bai jostailu batzuk be. Hemendik aurrera be lan horri ekingo deutsagu, eta oraingoan inklusibidadearen aldeko apostua egin dogunez, hurrengo argitalpenetan, zabaldu dogun bide barri horri eusteko asmoa daukagu.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaille ofiziala















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.